

hondo-hondotik

Aitor Aguado eta Ion Arregi

(Gerrarik Ez Sareko kideak)

Otsailaren 15a, gera dezagun gerra

Hilaren 15ean, munduko bazter guztietan izango dira manifestazioak, Irakeko gerraren aurka. Baita euskal hiriburuetan ere. Hainbatek deitu dute manifestaziora: Florentzian egin zen Europako Foro Sozialean izan ziren erakundeek, eta orain Porto Alegreko Munduko Foro Sozialak. Ahaleginak batzeko aukera eta beharra dago, beste odol-isurtze bat eta sarraski zentzugabe bat saihesteko.

Denborak aurrera egin ahala, geroz eta garbiago ikusten da AEBek eta Britainia Handiak arrazoigabeko nahia dutela erasotzeko. Ez dago argudiorik eraso militarrik zurituko dituenik, NBERen aginduz izan zein ez. Baina oraingo honetan, gainera, euren argudio nagusia zalan-tzan dago; izan ere, ikuskatzaileek ez dute aurkitu suntsipen handirako armak dituztelako frogarik. Washingtonek zilegizko defentsa arrazoiak darabiltza Iraki erasotzeko; Mendebaldearentzat Saddam arrisku handia dela diote, baina hori ez da hala, inondik ere.

Bushek Segurtasun Nazionalerako Estrategia Berriaren berri eman du jendaur-rean, eta hor onartu egin ditu nazioarte-ko terrorismoa deiturikoaren aurkako eraso prebentiboak, segurtasunaren ize-nean. Haren lagunek, hots, Israelek, Errusiak, Turkiak eta Indonesiak ere egin dezakete. Baina, hain zuzen, horixe da terrorismoa, eta ez beste ezer: norbe-raren interesengatik besteei nahieran erasotzea.

Inbasioak eta gerrak sufritu, eta euren zilegizko defentsa eskubidea aldarikatu dutenean, eskubiderik gabeko terroris-tatzat jo izan dituzte hainbat herrialde, baita eraso ere; hala nola Nikaragua, Granada, Panama eta Afganistani. Orain, Saddam Hussein garaitu nahi dute, giza eskubideak urratzearen alde-ko sutsua; baina ez hain zuzen arrazoi horrengatik, esaneko gobernu bat izan eta Erdialdeko Ekialdeko petrolioia esku-razateko baizik —Afganistanen bezala—.

AEBak irakiarrak salatzen tematu dira, Nazio Batuen ebazpenak betetzen ez di-tuztelako. Baina nazioarte-ko erakunde-ek AEBei leporatu zientenean adibidez Ni-karaguan eskua sartu izana, ez zuten



AEBetako soldaduak Kuwaiten entrenatzen.

esandakoa aintzat hartu. Eta gauza bera gertatzen da Israeli dagokionez. Bi neurri dituzte, eta suntsipen handirako armak edukitzeari buruz ere bi neurri horiek erabiltzen dituzte: AEBek eta haren aliatuek armategi beldurgarriak dituzte, baina logikotzat jotzen dute hori; beste batzuen eskuetan egotea, berriz, onarte-zintzat.

AEBetako gobernuek 23 bonbardatze egin dituzte 1945. urteaz geroztik, eta 216 esku-hartze militar baino gehiago egin dituzte nazio izendatu zituztenetik. Horrenbestez, zilegitzat jo dute herri ugariren aurkako historia gerrazale makabroa: ehunka mila lagun hil dituzte zuzenean nahiz zeharka; betiere, euren in-teresen zilegizko defentsaren alde, eta herrien eskubideak bazter utzita.

AEB eta haien tesi gogorrenen alde eginez, EBN lider disidente txiki gisa puntuak irabazteko ahalegina egiten ari da Aznar: Espainiako Eskuinak izan duen iragan zaharmindu eta faxista arrandiaz erakutsi du, herritarren senti-menduak ezertarako kontuan hartu gabe, eta mundu inperial eta totalitarioa lortzeko lan eginez.

Horrelakoak dira, tamalez, hipokrisi gerrazalea neurtzeko erabiltzen diren bi neurriak; ekintza kriminal guztiak indar-arren argudioen bidez zurutu dituzte, eta zuzenbidea guztiz baztertu.

Segurtasun arrazoiak

Hori dugu azkenaldiko argudio nagusia. Gauza ugari dakartza, gainera: askatasun zibil ugari murrizten ditu, herri etorkinen inguruko izugarritzko kontrolak egiten, komunikazioa bahetzeko legeak ezar-tzen, defendatzeko aukerarik eskaintzen ez duten akusazio latzak egiten, armak izugarri hedatzen eta gastu militarrik ugaritzen. Eraso *terroristak* direla medio, hondamendi apologetikoak iragarri dira, herriak beldurrez daude... nahiz eta etsaiek herrialde hori arriskuan jarri ez.

1945. urtean hasitako Gerra Hotzean, Errusia eta komunismoa izan zituen are-rio gogorrenak. Ondoren, 60ko hamar-kadako gerrateak eta deskolonizazio lis-karrak etorri ziren, baita arabiarren bata-sunak eta lerrokatu gabeko herrialdeek antolatutako erakundeak ere. Vietnam-go gerra amaitu zen, eta Latinoamerikan sortu ziren gerrilla guevaristak bertan behera geratu ziren... Eta inori ez zaio oharkabea pasatu *nazioarte-ko terroris-moa* deiturak ez duela oreka hori asko mehatxatuko. Duen baino indar handia-go egotzi diote, txorimalo bati bezala, kanpaina politiko eta militarretan.

Herri txiroentzat, berriz, segurtasunak oso bestelako itxura du. Herri horietakoak dira gerren ondorioz hildakoen %95. Era berean, honako ardurei ez diete irtenbide-

rik bilatu behar: jateko zerbait izatea, erre-gimen diktatorial eta ustelak legez kanpo-ratzea, jende guztiak giza eskubideei errespetua izan diezaieten lortzea, mine-rak eta energia baliabideak jatorrizko jabe-ei eskaintzea, senda daitezkeen gaixota-sunengatik jendea hiltzea saihestea, etxe-bizitza egokia izatea, osasun zerbitzu dui-na izatea eta heziketarako aukera izatea. Ardura horiengatik guztiengatik ez dute segurtasunik mundu guztiko pertsonek. Eta ez dute inolako loturarik hedatze mili-tar eta polizialen segurtasunarekin.

Gatazka armatuak eta irtenbideak

Ez da zibilizazioen arteko gatazkarik ger-tatu. Aberatsek euren harrokeria politi-ko, ekonomiko eta militarra inposatzen duten munduan gaude. Jainkoa eta On-giaren ardatza aipatzen dituzte sarri, eta Gaizkiaren ardatz zein deabruzkoak dei-tzen diete arerioei. Beste askok, gehie-gik, naturaz gaindikora jotzen dute, eta ezin da ezer onik lortu arazo errealei na-turaz gaindiko betaurrekoekin begira-tzen badiegu. Bidezidor gogorretatik ibil-tzea besterik ez dugu, non herriak injus-tziaren nahien pean egon beharko duen. Etorkizunik ez dutelako munduko herri ugarik izandako etsipenezko erreakzioak ulertzeko modukoak dira, baina ezin dira onartu gizartea askatzeko bide gisa.

Nazio Batuei so jarri gero, potentzien pean dagoen erakunde zurruna ikusiko dugu. Inondik inora ez ditu betetzen jus-tiziaren desioak eta herriekiko elkartasu-na. Egun, Segurtasunerako Kontseilu Iraunkorraren esanetara dago, eta batik bat Etxe Zuriko irainen menpe.

Demokrazia erregimenek proba ugari gainditu behar dituzte justizia eta askata-suna bermatzeko modukoak izateko. Ha-laber, despotismo, ankerkeria eta ustelke-ria ugari izaten da herri txiroetako sistema politikoetan. Demokraziek egin dezake-ten okerreten etengabe oldarkor azaltzea da eta beren buruari balio positiboak egotzea eta, aldi berean, basakeriarik han-dienak egitea eta giza balioak iraultzea.

Erredakzioan itzulia

Iritzi artikulua hau Jose Maria Matiasen eta Txemi Peñasek ere sinatu dute.

Mexikoko kanporaketek...

(Aurreko orrialdetik dator)

esaten. Besteren artean, espainiar poli-ziaren esku, kanporaketaren erruz, hain-bat pertsonak pairatu torturen gaia saihesten du, bere xedeetan ez dagoela aipatuz; bigarrenik, estradizio kamufla-tuak direlako gaiari ez dio heltzen, azter-tzen dituen kasuak banan-banan aipatuz;

eztabaida pertsona horien dokumentu ilegalean zehazten dute, hori ez delarik benetako arazoa, baizik eta bertan bizi-tzeko eskubidea kolokan jartzen dela eta, horri lotuta, kanporaketarako bide ilegalak erabiltzen direla.

Kanporaketak ilegalak dira, ez da le-gea betetzen, eta pertsona horiek, ilegal-tasun bat egonik kanporaketen jatorrian,

aske beharko lukete espainiar Estatuan. Gainera, esan bezala, kanporaketen bi-dez iritsi diren pertsona anitz torturatuak izan dira, besteren artean, kanporaketen ilegaltasuna zehazten den sei kasuetako zorigaitzoko partaideak. Mexiko nahiz Venezuelatik kanporatuak izan diren az-ken bi pertsonek, Borde Gaztelumendi ugaotarrak eta Sebastian Etxaniz elgoi-bartarrak, tratatu txarrak pairatu behar izan dituzte Guardia Zibilaren eta Espai-niako Poliziaren eskuetan igarotako egu-netan.

Ilegaltasun adierazpen horiek, Mexi-kotik iritsi berri zaiguna bezalaxe, ga-rrantzitsuak dira, espainiar Estatuak da-rabilen estrategia errepresiboaren zuta-beetako bat bertan behera uzten baitute (legaltasunaren erabileran oinarritzen dena), baina, egia esan, eta tamalez, ez dira nahikoak kanporaketa horiek saihesteko. Halere, ea horrelako harriak pilatuz euskal iheslari politikoen eskubi-deak babestuko dituen harresia eraiki-tzea lortzen dugun, haien giza eskubide-ak benetan defendatuak izan daitezen.